



Lehen Hezkuntza

**4. Modulua: ANIZTASUNA ETA ESKOLA
DIZIPLINARTEKO LANA (DAL) EGITEKO GIDA**

2017-2018

AURKIBIDEA

1. Aurkezpena

2. Arautegia eta Salbuestea

3. Helburuak, Gaitasunak eta Ikaskuntza-emaizak

3.1. Hleburuak

3.2. Gaitasunak

3.3. Ikaskuntza-emaizak

4. Lanaren garapena

4.1. Jarraibideak eta Kronograma

4.2. Entregatu beharreko informeak

4.3. Egindako lanaren ahozko defentsa

4.4. Egoerak

5. Ebaluazioa

6. Eranskinak

I. eranskina: Ebaluatzeko txantiloia

II. eranskina: Taldearen barne arauak

III. eranskina: Aktak egiteko txantiloia

.

1. DALaren aurkezpena

Globalizazio garaiko nazioarteko migrazioek migrazioen mundializazioa ekarri dute: jendea leku guztietatik leku guztietara joaten da. Horrek eragin handiak ditu: gizarte hartzaileetan kultura eta etnia asko biltzen dira. Gure kasuan, esaterako, Latinoamerikako, Afrikako eta Asiako jendeak heterogeneotasun etniko eta kultural gero eta handiagoa dakar, duela urte batzuetako nolabaiteko homogeneotasunaren aldean. Ondorioz, denbora tarte laburrean, derrigorrezko hezkuntzako ikasgelak, oro har, eta lehen hezkuntzakoak, bereziki, kultura eta etnia anitzeko ikasgelak bihurtu dira. Aurrez ez da halako eraldaketa sakonik izan, hainbesteko ondorioekin. Kultura aniztasunak hainbat abantaila dituen arren, ezin esan aniztasunera moldatzea erraza denik.

Testuingurua

Modulua, Aniztasuna eta eskola, Lehen Hezkuntzako Graduako 2. mailan egiten da, bigarren lauhilekoan. Modulu honen Diziplinarteko Lanean lantzeko adostutako gaia honako hau da: Immigrazioa eta eskola.

Moduluko Diziplinarteko Lanak (DAL) guztira 5 kreditu hartzen ditu, hau da, barne hartzen duen gai bakoitzeko kreditu 1:

- Kreditu 1. Eskola Inklusiboaren Oinarriak
- Kreditu 1. Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak, Hezkuntzan
- Kreditu 1. Zailtasunak Garapenean eta Ikaskuntzan
- Kreditu 1. Lehen Hezkuntzarako Hezkuntzaren Didaktikaren Oinarriak Testuinguru Eleanitzetan
- Kreditu 1. Arteen eta Ikusizko Kulturaren Hezkuntza

Moduluko Diziplina Arteko Lana (DAL) moduluko irakasgai guztien osagaia da, eta egiteko horretan ikasturteko gaitasunak eta titulazioko zeharkako gaitasunak landuko dira. Lana egiteko erabiliko den metodologia Arazoetan Oinarritutako Ikasketa (AOI) izango da.

Jarraibideak

- Lana egiteko, ikasgelako praktika taldeetatik osatuko **6 ikaskideko taldeak** dira eta ikasleen irizpidea izango da nagusi (jarraitutasuna, hurbiltasuna, elkar ezagutzea, eta abar). Talde bakoitzari tutore bat esleitu zaio (tartean diren irakasgairen bateko irakaslea izango da, betiere).
- Lanaren lehenengo fasea eskolen 5. astean egingo da (otsailak 26-martxoak 2).
- Lana egiteko, ikasleen 100 lanordu behar dira (4 kreditu), 8 astetan banatuta. Horietako bi oso (40 ordu) bertaratuta egin beharko dira, dagozkien eskola ordutegietan tartean diren arlo guztien parte-hartzearekin (bai eskola magistralak bai ikasgelako praktikak). Gainerako orduak bertaratu gabe

egitekoak dira, eta ikasleak, batez beste, astean 10 ordu inguru eskaini beharko dizkio lanari.

- 10. aste osoa (apirilak 9-13) DALari eskainiko zaio. Lana 12. astean (apirilak 23-27) entregatuko da, eta lanaren defentsa, taldeka eta banaka, dagokion tutorearekin egingo da, tutoretza ordutegian, 14. astean (maiatzak 7-11).
- Lantalde bakoitzaren **tutorearekin gutxienez bi saio egitea proposatzen da**, 5. astetik 11. atera bitartean.

2. Arautegia eta salbuespenak

Moduluko diziplinarteko lana (DILAN) ikasle guztiek egin behar dute, eta egiten ez dutenek harri buruzko azterketa teoriko-praktiko bat egin beharko dute.

- DILANari dagokion nota irakasgai bakoitzaren azken notaren % 16 izango da (1,6 puntu).
- Irakasgaia gainditu ez bada, baina bai DILAN, DILANari dagokion nota gorde egingo da ezohiko deialdira arte (ekaina-uztaila).
- Arrazoi desberdinak tarteko, lana (DILAN) egin ez duten ikasleek, lehenengo irakasgaiaren azken azterketan, gai horri loturiko egoera edo arazo bat ebatzi beharko dute. Galdera honek 1,6 puntuko balioa izango du eta irakasgai guztietarako izango da.

Titulazioa modularra denez, eta lanak diziplina arteko edukia duenez, ikasleak jarraikako ebaluazio sisteman parte hartu ezin badu justifikatutako arrazoiengatik (lan-arrazoiak, senideak beren kargura izatea, %33ko urritasuna edo hortik gorakoa, maila altuko kirolaria izatea, bidaiak egitea edo dedikazio handia eskatzen duen jarduera artistiko edo kulturalen bat garatzea, goi mailako beste ikasketa batzuekiko bateragarritasuna, kargu politiko, sindikal, elkarte edo GKEren bateko karguren batekiko bateragarritasuna edo bestelakoak), DAL horrekin erlazionatutako proposamena egin beharko du, eta ahoz defendatu, modulu bakoitzean horretarako zehaztuko den datan.

Egoera horretan dauden ikasleak moduluko koordinatzailearekin (edo titulazioko koordinatzailearekin) jarri beharko dira harremanetan **otsailaren 2a** baino lehen, eta honek behar dituzten informazioak emango dizkie, hala nola, lana entregatzeko eta defendatzeko data zein tokia; lan horretarako ez da egongo tutorerik eta ikasleak dagokion arloko irakaslearengana jo beharko du zalantzak argitzeko.

Proba horren balioa modulu honetan DALari dagokion berdina izango da, hau da, %10a irakasgai bakoitzaren kalifikazioan.

DAL horren kalifikazioa ohiz kanpoko deialdira arte gordeko da (ekaina-uztaila).

Edonola ere, EHU-k 2016ko abenduaren 15ean hartutako erabakiak eta BOE-n argitaratuta duen araudia aplikatuko da (EHAA, 50 zb. 2017ko martxoaren 13a).

DALa egiteaz salbuestea

1. Mugikortasun programetan parte hartzen ari diren ikasleek ez dute DALa egin beharrik izango, modulu oso batean matrikulatuta dauden kasuetan izan ezik.
 2. Graduako ikasleek DALa egin beharko dute, baldin eta modulu bateko hiru irakasgaitan matrikulatuta badaude, gutxienez. Gainerako kasuetan, ikasleek ez dute DALa egin beharrik izango.
 3. DALa egin behar ez dutenen kasuan, irakasgaiaren nota 10en gainean izango da, DALaren portzentajea aplikatu gabe.
 4. Aldi berean bi modulu egin behar dituzten ikasleek (irakasgai batzuk baliozkotuta edo gainditu gabe dauzkatelako) irakasgai gehien egiteke dituzten moduluko DALa egin beharko dute soilik. Bi moduluetan egin beharreko irakasgai kopurua bera bada, goreneko mailako moduluan egingo dute DALa.
- Aurreko kasuetako edozeinetan gomendatzen da moduluaren edo titulazioaren koordinatzailearekin hitz egitea, egoeraren berri emateko.

3. Helburuak, Gaitasunak eta Ikaskuntza-emaizak

3.1. Helburuak

- Graduako zeharkako gaitasunak aplikatzea: taldeko lana, ahozko eta idatzizko komunikazioa, informazio bilaketa, informazioa irakurri eta modu kritikoan aztertzea.
- Arazo jakin baten ebazpenean modulua osatzen duten gaien inguruko ezagutzak integratzea eta erlazionatzea (Ikastetxearen Antolakuntza, Lehen Hezkuntzarako Hizkuntzaren Didaktikaren Oinarriak Testuinguru Eleanitzetan, Zailtasunak Garapenean eta Ikaskuntzan eta Eskola Inklusiboaren Oinarriak).

3.2. Gaitasunak

- Hezkuntza prozesuaren aldagai nagusiak identifikatzea eta ikastetxean eta ikasgelan behar bezala esku hartzeko beharrezkoak diren baliabideez hornitzea, ikasleen beharrak eta zailtasunak kontuan hartuz, inklusio irizpideekin.
- Eskolako aniztasunari loturiko arazo konplexuak eta tesguinguruan kokatutakoak diziplinarteko ikuspegi batetik ebaztea, diziplina zientifiko bakoitzaren ekarpenak identifikatuz.
- Graduako zeharkako gaitasun hauen lorpen maila etengabe garatzea eta hobetzea.

3.3. Ikaskuntza-emaizak

- Inklusio ikuspuntutik, Hezkuntza prozesuaren aldagai nagusiak identifikatu ditu.
- Aukeratutako arazoa diziplinarteko ikuspegi batetik ebazti du
- Idatzizko baieztapenak arrazoitzen eta argudiatu ditu

- Ideiak koherentziaz eta kohesioz aurkeztu ditu
- Kontzeptu eta alderdi nagusien arteko harremanak argitasunez eta originaltasunez ordenatu ditu
- Idatzizko lana behar bezala aurkeztu du
- Idatzizko hizkuntza formala behar bezala erabili du
- Bibliografia eta aipuak APA formatuan aurkeztu ditu
- Taldearen bileretara bertaratu da (aktak).
- Jarraitutako prozesuko mugarri garrantzitsuenak deskribatu eta aztertu ditu.
- Taldean ikasitakoa modu arrazoituan baloratu eta ebaluatu du.
- Aldaketak edo hobekuntzak proposatu ditu
- Taldeko ikaskuntza prozesua modu arrazoituan deskribatu, aztertu eta baloratu du.
- Aldaketak edo hobekuntzak proposatu ditu.
- Lanaren alderdi nagusiak argi azaldu ditu.
- Zuzentasunez adierazi da.
- Jarraitutako prozesua eta egindako lana ongi ezagutu eta menperatu ditu.

4. Lanaren garapena

4.1.- Jarraibideak

A) Taldeka, “arazo” edo hasierako egoera aukeratuko dute, baita aukeraketa arrazoitu ere (2 egoera eskainiko zaizkie ikasleei).

B) Arazoa ebatziko dute, **PBL/AOI metodologiaren jarraibideen** arabera:

- Egoera irakurri (bakarka eta taldean), zalantzak azaldu (terminologia, kontzeptuak, egoerak...) eta egoera ebazteko bide desberdinak planteatu (kontsultak non egin ditzaketen, nola...). Arazoaren alderdi desberdinak azaltzea eta batera jartzea. Arazoa zehaztea.
- Zer dakigu arazo edo gai honi buruz? Ezagutzen dugu antzeko arazoren bat? Ezer entzun al dugu horri buruz? Antzeko ezer bizi izan al dugu? Arazoa konpontzeko modu desberdinak proposatzea (hipotesiak).
- Taldea osatzen duten pertsonen banakako ekarpenak idatziko dira; alde batetik, gaiari buruz dakitena eta, bestetik, konpontzeko bilatutako alternatiba posibleak.
- Beste zerbait jakin behar dugu? Non bila dezakegu? Moduluko irakasgai bakoitzak zer laguntza ematen digu arazoa ebazteko? Zereginak eta informazio berria biltzeko aukerak banatu. Informazio bilaketa, hautaketa eta azterketa.
- Emaitzak taldeari agertzea. Informazio berria aztertzea eta arazoa berriro zehaztea.
 - Arazo honen kausak, jatorria eta ondorioak ezagutzen saiatu behar da, ikuspuntu posible guztietatik osorik aztertu behar da (moduluko

irakasgaiei dagokienez), funtsezko alderdiak, ebazteko esku-hartze ildo posibleak detektatuz.

- Ikertutakoaren zergatia baloratu, “ezagutu berri duguna” zalantzan jarraztea, balioak hartzea sustatzeko edo, behintzat, errealitatearen aurrean jarrera kritikoa izateko.
- Arazoaren planteamenduari erantzuten dion esku-hartze proposamen bat diseinatzea.
- Ikasitakoaren eta eginiko prozesuaren gaineko ebaluazioa egitea, emaitzak lortzea eta entregatu beharreko lanaren azken lanketa egitea.

4.2. Entregatu beharreko LANA

Lana 12. astean entregatuko da eta, **gehienez, 20 orrialde** izango ditu. Lanak ondoko atalak izango ditu:

- Sarrera.
- Aukeratutako egoera eta aukeraketa horren justifikazioa.
- Arazoa ebazteko jarraitutako prozesua, urrats bakoitzean iturri desberdinetatik lortutako informazioa esplizitu eginez: kontzeptuak, teoriak, dokumentuak, esperientziak, eta abar.
- Ondorioak.
- Erreferentzia bibliografikoak.
- Eranskinak:
 - Taldeko bileren aktak.
 - Banakako eta taldeko hausnarketa-autoebaluazioa.

Lanean unibertsitate lan guztiek bete beharreko ezaugarriak errespetatuko dira jarraitu beharreko eskemari, formatuari, argitasunari, antolakuntzari eta APA araudiaren aipuak eta erreferentzia bibliografikoei (eskolako webgunean argitaratuta dagoena hartuko da erreferentzia moduan).eta abarri dagokienez.

4.3. Egindako lanaren ahozko defentsa, dagokion tutorearen aurrean

- 14. asteko tutoretza orduetan egingo da.
- Tutoreak zehaztuko du aurkezpena eta defentsa nola egin.
- Taldeko kide guztiak bertan izango dira, lana azaltzeko eta defendatzeko moduan.

4.4. Egoerak

1. egoera: BABELGO ESKOLA

Lehen Hezkuntzako gure ikastetxeetako ikasgeletan gero eta ikasle gehiagok dituzte beste ama hizkuntza batzuk (errusiera, errumaniera, hizkuntza afrikarrak, eta abar).

Duela oso gutxi arte, irakasleek ez zituzten aintzat hartzen ofizialak (euskara eta gaztelania) ez diren hizkuntzak (zenbait ikasleren jatorri hizkuntzak), eta ez zen haien aipamenik egiten ikastetxeko dokumentuetan, bigarren mailako eta garrantzirik gabeko gaitzat hartzen baitzen. Orain, aldiz, askoz ere ohikoagoa da irakasleek ikasleen artean hizkuntza aniztasun handiago batekin topo egitea, baita gizarte eta kultura aniztasun handiago batekin ere.

Irakasleek ikusten dute fenomeno hau indarra hartzen ari dela, eta ezinegona edo kezka azaltzen dute aurrean duten egoera dela eta, ez baitute kaltetutako testuinguruetatik datozen ikasleekin jarduteko prozeduren inguruko hasierako prestakuntzarik jaso. Irakasle batzuek uste dute aniztasun horrek nolabaiteko tratamendua behar duela ikastetxean, baina sentsazio nabarmenena da ez dutela zalantzan jartzen ez den oinarritzko jarraibiderik, edo dituztenak ez direla nahikoak. Gainera, irakasleek ez dakite taldeko lana nola planteatu eta kasu bakoitzeko zailtasunei nola erantzun.

Testuinguru horretan, ikastetxe bateko arduradun batek bere ikastetxeko ikasgeletan orain duten hizkuntza heterogeneotasun egoera berri honi behar bezala nola erantzun dakioken ikertzeko lehenengo urratsak egitea erabaki du.

2. egoera: BIZITZA BERRI BAT

Ibrahimek eta Sirak 11 eta 7 urte dituzte, hurrenez hurren. Anaia-arrebak dira, eta Morokotik Bilbora iritsi berri dira, beren familiarekin. Ikasturtea hasita dagoen arren, ikastetxe batean hasi dira, eta integratzen saiatzen ari dira. Bietako inork ez du gaztelaniaz hitz egiten, ezta euskaraz ere. Beren gurasoek ere ez dituzte hizkuntza horiek hitz egiten. Aita gaztelaniaz pixka bat ikasten hasi da lankideekiko harremanari esker; amak, aldiz, etxean igarotzen du ia egun osoa, eta jende gutxirekin du tratua, beraz, oraindik ez daki ezer gaztelaniaz.

Sira neskato alaia eta oso irekia da. Oso gustuko du adiskideekin patioan jolasean ibiltzea, eta nolabait, ulertzen dute elkar. Morokon oso ongi ibiltzen zen eskolan. Ez zen asko saiatzen, “alfer” samarra delako, baina emaitza onak lortzen zituen.

Ibrahim mutiko formala eta arduratsua da, baina oso lotsatia da, eta bere herrialdearen eta hango lagunen falta handia sumatzen du. Morokon mutiko oso saiatua eta langilea zen, baina inoiz ez zituen nota onak ateratzen. Orduko irakasleen esanetan, Ibrahimi kosta egiten zaio informazioa barneratzea, ulertzen duela dio, baina bere emaitzak urriak eta apalegiak dira.

Bi gaztetxoak Morokon bizi zirenean hasi ziren jada frantsesa ikasten.

Ibrahimen eta Siraren gurasoak ohartzen dira bizitza berri hau oso zaila izango dela laurentzat, eta horregatik jo dute ikastetxera, zuzendariarekin eta irakasleekin hitz egiteko (itzultzaile baten laguntzarekin), eta beren seme-alaben aurrerakuntzen berri eta laguntzeko egin dezaketenaren berri eman diezaieten eskatu diete. Ikastetxeko profesionalek ongi gidatuko dituztela eta beren seme-alabei ahal bezain laster beren eskoletan beste bat gehiago izaten lagunduko dietela espero dute.

5. Ebaluazioa

Zer ebaluatzen da	%	Nork ebaluatzen	Tresnak
IDATZIZKO LANAK		Irakasleak/ikasleak	
- Aukeratutako egoera eta aukeraketaren justifikazioa. - Arazoa ebazteko jarraitutako prozesua, urrats bakoitzean iturri desberdinetatik lortutako informazioa esplizitu eginez: kontzeptuak, teoriak, dokumentuak, esperientziak, eta abar.	% 40	Irakasleak	
- Taldearen bileren aktak. - Jarraitutako prozesuaren gaineko taldearen hausnarketa. - Taldearen autoebaluazioa	% 10	Irakasleak (hausnarket	Banakako eta taldeko hausnarketan baliagarri eta bideratzeko lagungarri izan daitezkeen txantiloiak emango dira.
	% 15	Ikasleak (autoebaluazioa)	
- Jarraitutako prozesuaren gaineko banakako hausnarketa. - Banakako autoebaluazioa	% 10	Irakasleak (hausnarket	
	% 15	Ikasleak (autoebaluazio	
AHOZKO DEFENTSA (taldeka eta banaka)	% 10	Irakasleak	

ERANSKINAK

I. ERANSKINA. Idatzizko lana ebaluatzeko errubrika

Ebaluatutako alderdia	Bikaina (10-9)	Oso ona (8-7)	Nahikoa (6-5)	Gutxiegi (<4)
Ideien aurkezpen ordenatua, koherentea eta logikoa	Ideiak argi eta zehatz azaldu dira, logika arin batez. Aurkibidea, epigrafeak eta azpi-epigrafeak egoki erabili dira lana egituratzeko eta ordenatzeko. (2)	Ideiak koherentziaz azaldu dira lanean zehar, baina argiago ere azal zitezkeen. Aurkibidea egoki erabili da, baina epigrafe edo azpi-epigrafe gehiago erabil zitezkeen lana ordenatzeko. (1)	Lanaren atal batzuk ordenatuak eta koherenteak dira, baina ez lan guztian zehar; alegia, hobetu daiteke. Aurkibidean bada akatsen bat, eta epigrafe edo azpi-epigrafe gehiago erabil zitezkeen lana ordenatzeko. (0,5)	Ideien azalpenak nahasiak dira, koherentziarik gabeak, eta ez dute ordena logikorik. Nahas-mahas handiko lana. Aurkibidea ez dator bat lanarekin, eta akats ugari dago. (0)
Kritikotasuna, sormena eta heldutasuna	Ikuspegi berritzailea eta sormenezkoa dakar, heldutasunez arrazoitu da, kalitate handiko erreferentziak txertatu dira, eta eztabaida sakona izan da taldekideen artean. (2)	Lanaren ikuspegia beste egile batzuen aipamen edo erreferentzietatik haratago doa, eta ikusten da taldekideen artean eztabaida izan dela, nahiz kritikoagoa eta sortzaileagoa ere izan zitekeen. (1,5)	Lanaren ikuspegia erreferentzia garrantzitsu batzuen azterketan oinarrituta dago, baina eztabaida sakonagoa eta kritikoagoa egin beharra zegoen. (1)	Ikuspegia ez da oso berritzailea, ez baitu ezer eskaintzen beste egile batzuen aipu eta erreferentzietatik haratago. Gainera, erreferentziak ez dira ikuspuntu kritiko batetik aztertu. (0)
Gaiaren trataera sakona moduluko irakasgaien edukiekin lotuta	Gaia guztiz ulertu da; irakasgaietako edukiak arrazoituz erabili dira arazoaren trataeran, eta aurkeztutako testuinguruarekin lotu dira. (2,5)	Gaia ondo ulertu da, moduluko irakasgaiak integratu dira, eta, gutxienez, partzialki ulertu dituzte testuingurua eta gaiarekin lotutako beste gai batzuk. (2)	Gaia nahikoa ulertu da, eta, gutxienez, saiakera bat egin da gaia irakasgaiekin lotzeko eta beste gai batzuekin erlazionatzeko. (1,5)	Gaia ez da ondo ulertu, ez dira aplikatu irakasgairen bateko edukiak eta ez da loturarik egin intereseko beste gai batzuekin (0)

Informazio iturrien erabilera	Informazio iturriak bikain erabili dira, aurrez planteatutako oinarri eusteko baliatu baitira. Aipu eta erreferentzia guztiak ongi txertatuta daude APA arauen arabera. (1,5)	Ikuspegi gehienak informazio iturrietan oinarrituta daude. Aipu eta erreferentzia gehienak ongi txertatuta daude APA arauen arabera. (1)	Ikuspegi batzuk ez daude informazio iturrietan oinarrituta. Aipu eta erreferentzia gehienak ongi txertatuta daude APA arauen arabera. (0,8)	Ikuspegi gutxi edo bat bera ere ez dago oinarrituta informazio iturrietan. Testuan txertatutako aipu eta erreferentziek akatsak dituzte APA arauen arabera. (0)
Terminologia, ortografia eta gramatika	Terminologia ugari erabili da, eraginkortasunez, eta ortografia eta gramatika guztiz zuzenak dira. (1,5)	Terminologia egoki erabili da. Lana, oro har, ongi idatzita dago, baina badago ortografia eta/edo gramatika akatsen bat edo beste. (1,2))	Terminologia egoki erabili da, baina aberatsagoa ere izan zitekeen. Badira ortografia eta gramatika akats batzuk, baina lana ongi idatzita dago, oro har. (1)	Terminologia gaizki erabili da askotan. Ortografia eta gramatika akats ugari daude. (0)
Lana garaiz entregatzea	Lana entregatzeko epean puntualtasun zorrotza. (0,5)	Lana ez dute garaiz entregatu, baina taldeak aldez aurretik jakinarazi dio irakasleari, eta arrazoi egokiak eman ditu atzerapena azaltzeko. Egun bateko atzerapena izan dute. (0,3)	Lana ez dute garaiz entregatu, baina taldeak aldez aurretik jakinarazi dio irakasleari, eta arrazoi egokiak eman ditu atzerapena azaltzeko. Bi eguneko atzerapena izan dute. (0,2)	Lana hiru egun geroago entregatu dute, edo, egun bateko edo biko epean entregatu arren, ez dute aldez aurretik jakinarazi. (0)

II. ERANSKINA. Taldearen barne arauak

Taldeak funtzionamenduaren barne-arauak ezarriko ditu, aspektua hauek kontuan hartuta:

- Nola bildu informazioa
- Nola banatu lana
- Nola banatu ardurak (bilera koordinatu, akta egin).

III. ERANSKINA. Akta egiteko Txantiloia

	Hasiera ordua:	Lekua:	Amaiera ordua:	
Taldearen izena:		Koordinatzailea: Idazkaria: Bozeramalea:		
Bertaratutakoak:		Bertan izan ez direnak:		
Aztertutako gaiak: –				
Hartutako erabakiak:				
Hurrengo bilerarako eginkizunak:				
Zer?	Nork?	Noiz?	Materiala	Oharrak:
Hurrengo bileran aztertu beharreko gaiak: 1- 2- 3-				
Hurrengo bilkuraren data:		Lekua:	Ordua:	